

Bermeoko Udala
Ayuntamiento de Bermeo

IRAGARKIA

Toki Errejimeneko oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 49. artikuloren arabera, jakin arazten da Udal Osoko Bilkurak bere 1992ko martxoaren 7ko sesioan "Diru laguntzak ete udal baliabideen izketa" ordenantzaren ondorengo artikuloen aldaketa hasiera batean onartu ebal.

Aldatutako artikulok 5, 51, 5.2, 5.3, 5.4, 5.5, eta 7, 8.1, 8.2, 9, eta II. Kapituloko zenbakiak, 10etik hasita.

30 eguneko epean espedientea aztertu eta nahi dauanak alegazio zein erreklarnaziorik aurkeztu izango dauz Bat ere aurkeztuko ez balitz behin-betikoz onartua ulertuko litzatekelarik

Bermeon, 1992ko maiatzaren 4ean.- Alkatea

UDAL BALIABIDEEN ERABILPENA ETA DIRU-LAGUNTZAK EMOTEA
ARAUTZEN DAUAN UDAL ARAUTEGIA

1. art

Arautegi honen helburua, Bermeoko Udalerriko biztanleen interes orokor edo arlo batetakoan aldeko Elkarteko edo Taldeen garapena eta iharduerak indartzeko udal ekintzak arautzea da, ahal dan neurrian, diru laguntzak eta udal baliabideak erabiltzeko baimena emonaz, Toki Errejineneko Oinarriak arautzen dauzan Legearen 72, Udalbatzetako Lege Errejimen, Antolakuntza edo Funtzionamenduaren Arautegiko 232 artikulok ezarritakoarena arabera.

I. ATALA
Diru-laguntzak

2 art.

Udal Aurrekontuak izten dauanaren neurrian, Udalak, Elkarte, Erakunde edo taldeak lagunduko dauz diruz, bere helburuak burutu eta garatzeko bai bere gastu orokorre jagoenez, eta baita ekintza zehatzak ordaintzeko ere.

Horretarako, Udalaren aurrekontu orokorretan, partida bat sartu daiteke, eta bere banaketea, Arautegi honetan ezarritako erizpide eta jardunbidean oinarrituko da.

3 art.

Diru-laguntzak moeta bitakoak izango dira:

- a) Izaera Orokorrekoak, izaera ezbardinetako gastuak ordaintzeko.
- b) Izaera zehatzekoak, ekintza zehatzak antolatzeko.

4 art.

Udalak urtero emoten dauzan izaera orokorreko diru-laguntzez kanpo, edonoiz eskatu daitekez, izaera publikodun jai, ospakizun lehiaketa nahiz beste honelako ekintzak antolatzeko, beste diru-laguntza batzuk. Laguntza horrek emon ahal izateko, 5.3 artikuloko ezarritako bidea jarraitu beharko da.

5 art.

1. Udalaren Aurrekontu Orokorra onartu ondoren, horretarako konsignazio nahikorik daben udal Batzordeek, jagokozan diru-laguntzak idatziaz eskatu ahal izateko epea bat jarri daikie, horretarako. interesadun erakundeek beren ekintza egitarauetan oinarritu beharko dira, eta baita, eskari hori oinarritzeko urte horretako udal aurrekontura ere.

Batzordearen aurrekontuak egiteko, hurrengo urtean izaera zehatzezko diru-laguntzarik lortu nahi daben taldeek, ureteko egitasmoen eta aurrekontuen prebisio aurkeztu beharko deutsoez, idatziz, Batzordeari, Azaroaren lehen hamabostaldian, ekintzak ospatuko diran egunak, gitxi gorabehera, azalduz.

Urteko Izaera orokorreko diru-laguntzak, urtarrilaren lehen hamabostaldian eskatuko dira. Eskari horretan, 7 artikuluan agertzen diran ekintzak sartuko diralarik.

2. Hileko ekintzen egutegi zehatza egin ahal izateko, ekintzea ospatu baino bi hilabete lehenago, talde antolatzailearen ordezkaria, Batzordeagaz harremanetan jarriko da, zehaztutako egunak, aurrekontua, eta ekitaldi hori burutzeko beharrezko azpiegitura (lokala, oholtza, etab.) azaltzen dauan idazti bat emoteko.

3. Edozein diru-laguntza moeta lortzeko eskariak, Erakundearen Lehendakariak egin beharko dauz, edo ta, Erakundearen ordezkariak legez daukanak, eskabidean, bere zehaztasun pertsonal guztiak agertu beharko dauzalarik. Eskatzaile horren izenean, egingo da, diru-laguntzea emoten danean, udal diruzaintzearen aldetik jagokon ordainketa agindua.

4. Aurkeztutako eskariak eta agiriak, jagokon Udal Batzordeak aztertu ondoren, proposamena egingo da, Gobernu Batzordeak onartu beharko daualarik kontu Batzorde Bereziak infmatu ondoren.

Erakundearen ordezkariak, erabaki horren adierazpena idatziz hartuko dau.

5. Diru-laguntza zehatza edo orokorra, talderen bati ukatuko balitz. bere ordezkariak, hamabost eguneko epea izango dau, erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahal izateko.

6. art.

Batzorde batek egindako, diru-laguntzen banaketa edo emoitza proposamenak ezin izango dau, inolaz ere, horretarako Udal Aurrekontuan konsignatutako partidarik geinditu, edo ta, Batzordeak helburu honeetarako daukan dirutzarik gairiditu.

7 art.

1 Urte horretan, Bermeoko herrirako dohainezko ekintza bi gitxienez egiteko konpromezua hartzen dau, urteko diru-laguntza orokorra hartzen dauan erakundeak. Dohainezko ekintza bi honeek antolatzeke azpiegitura eta materialen gastuak, Udalaren kontura joango dira.

2 Edozein diru-laguntza emoteko orduan, Udalak, interesatutako erakundeagaz batera, kasu bakoitzarentzat, beharrezko eta bereziak diran baldintza gitxiengo balzuk betetea ezarri daiteke, diruz laguntzen dan edo diran ekintzak garatzeko.

8. art.

1 Izaera orokorreko Udalak emoten dauzan diru-laguntzak, ekintzen txostena eta erakundearen ekonomi egoerearen barri emotearen bidez egiaztu beharko dira, urtarrilaren lehen hamabostaldian, baita, 7. artikuloko ekintza egiteaz ere Txosten hori, urte horretarako diru-laguntza eskariaz batera aurkeztu leike.

2 Udalaren aldetik, izaera zehazdun dirulaguntzarik lortu dabon Erakundeek, ekintzea amaitzen dan egunetik hasitako hilabeteko epe barruan egindako gastu guztiak egiaztatatu daitekez, jagokozan agiaztaginak erantsiz.

3 Inolaz ere, ezin izango da, oraindik diru-laguntzarik egiaztatzeke balego; barririk emotea.

9 art.

Diru laguntzen emoitza edo banaketa proposamenak egiteko orduan, Udal Batzordeek kontutan izan beharreko baldintzak, erizpide honeetan oinarrituko dira:

- a) Bere ordezkariitzearen izaera eta gizarte giroa.
- b) Interesgarritasuna, edo herrian sustraitutakoa edo erabilpena.
- c) Herrikoitasun mailea, zabalkundea eta aurreko urtean garatutako ekintzek izandako garrantzia.
- d) Erakunde horren iharduerek dauken Gaztediarenganako eragina.
Beste gizadi batzuk ere kontutan izango dira.
- e) Diru aldetik autonomi gaitasuna, edo beste erakunde publiko edo pribatuaren menpe zuzena edo zuzena ez dana izatea
- f) Beste erakunde publiko edo pribatuengandik lortutako edo lortu daikien diru-laguntza edo beste moetatutako laguntzak.
- g) Egiten diran ekintzetan euskerearen erabilpena eta bera bultzatzea, orokorki, diru-laguntzea hartu nahi dauan talde edo elkartearen barruan.
- h) Diruz lagundutako ekintzetatik eratorritako propagandea, euskeraz egingo da, eta behar balitz, elebidun atarako litzateke, euskerazkoari lehentasuna emonaz (euskereari buruzko Udal Arautegiaren 21. artikuloa); era beti eroan beharko dau Udalerriko armarrria "Bermeoko Udala" eta diruz I laguntzen dauan Batzordea bertan agerturik.

II ATALA

Udal baliabide publikoen erabilpena

10 art.

Bermeoko Udalak, Arautegi honetako 1 artikuluan azaltzen diran erakundeei, udal baliabide publiko batzuk erabiltzeko ahalmena emon leikie, hau da, altzariak, eraikuntzak , joereak edo beste honelako gauza edo materialeak, bere ekintza sozial edo eginkizunak garatzeko, aurreko artikuluan horretarako ezarritako erizpideak kontutan izanik.

11 art.

Eraikunza ondasunen erabilpena, Udalak erabakiko dau indarreko legediaren arabera.

12 art.

Inolaz ere, ezin izango da, mugagabeko aldi baterako erabilpenak erabaki. Epea, bost urtetakoa izango da, nahiz eta, luzatu ahal izan Udalaren aldetik, epe bardenetan.

Udalak, ondasun hori aurreko atalean ezarritako epea baino lehen izatea behar baleu, zerbitzu bereziren bat jartzeko, epea amaitu baino lehen itzi daiteke balio barik, Erakunde interesadunari ohartu ondoren, ondasunaren behar izan premiazkoaren arabera finkatuko dalarik epe hori.

13 art.

1. Erakundeari baimendutako eraikuntzearen erabilpena. baimen hori arrazoitzen dan helburuetatik kanpoko bostetarako ez da izango.

2. Urtebeteko ondasunaren erabilpen ezak, baliogabetzea eragingo dau, behar dan moduan egiaztatutako zioekaitik ez balitz.

Udalaren eskuetan egongo da, Erakundeari audientzia emon ondoren, kasu zehatz bakoitzean aztertzea, itzitako ondasunaren ez erabilpena arrazoitzeko alegatutako.

Edozelan ere, behartuta geratzen da Erakundea, urtea igaro orduko Udalaren jakintasunean jartzen, ondasuna ez erabiltzeko gertatutakoa.

14 art.

Eraikuntzak itzi ezkeru, Erakundea arduratuko da, ondasun hori eta bere instalazioak behar dan moduan mantentzeko, Erakunde horri, behar diran neurriak hartzeko agindua emon leikiolarik.

15. art.

Erabilpen epea amaitu ondoren. eta luzaluko ez balitz, eraikuntza edo instalazioak Udalarari itzuliko jakoz, Erakundearen aldetik, emoitza egunean egon ez diran gauza guztiak kendu daitekezalarik, eta ondasunoi lotuta ez balegoz, inolako ezabakuntza edo kalterik eragin barik.

Udalak, itzultitako ondasunak hartzerakoan, Erakundeko Lehendakari edo Ordezkarriaren aurrean, jagokon Agiria jasoko da. Ordezkarri hori egongo ez balitz ere bardin egingo da, Udal Arkitektoak sinatu beharko daualarik.

Agiri horretan, agertuko da. itzultitako ondasunen egoerea. ikusten diran ezabapenak zehaztuz Akatsik balego. Agirian azaldutakoa oinarritzat harturik, espedientea zabalduko da, han azalduko dira, Erakundeari eskatu behar jakozan konponketen dirutzea, behar izana balego, administrazioaren premiabidera joz.

16 art.

Arautegi honen babeseko baimen guztietan, euren arabera emongo diran atalak finkatuko dira

17 art.

1 Udalak emondako diru-laguntza edo laguntza zehatzen bidcz. ekintza berezi batzuk antolatzeke, Erakunde batek erositako materiale edo gaiak, deposito modura izango dabez, euren zaipen eta mantenuaz zuzenki arduratuko dira. ekintzetan erabili ondoren, eta beste sajo batzutan erabili ahal izateko.

2 Udalak zehaztuko dau bakoitzean, aurreko atalean agertutako gaiak. udal tokiren batetan gordetea, horrek erabilitako ekintzea amaitu ondoren, Udalak berak zainduz.

3. Erakundearen erruz gertatzen dan edozein akatsen erantzunkizuna izango dau berak, Udalaren aurrean.

18. art.

Erakundea ezereztatzea edo desagertzea. Udalak emondako udal baliabideen edozein erabilpen erabaki baliogabetuko dau

XEDAPEN OSAGARRIA

Kirol ekintzetarako udal baliabideak erabiltzeko baimenak edo laguntza eta diru-laguntza emotea, Kirolen Udal Patronatoari jagoko, bere zuzendaritza Batzordearen bidez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Kultur Etxea eraikitzen danean, bertan egongo diran talde edo erakundeek, udal baliabideak erabiltzeari jagokonez, bere egunean artuko dan Barru Arautegiaren bidez arautuko dira.

IRAGARKIA

Uztailaren 6ko 1989/6 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 22 eta jarraiko artikuloak beteaz jakin afañen da Osoko Bilkurak bere 1992ko martxoaren 27ko sesioan 1992 urterako Enplegu eskaintze publikoa hau onartzea erabaki ebala.

30 eguneko epean espedienteaz aztertu eta nahi dauanak alegazio zein erreklamaziorik aurkeztu izango dauz. Bat ere aurkeztuko ez balitz behin-betikoz onartua ulertuko lizatekelarik.

Bermeon, 1992ko maiatzaren 5ean.-

Alkatea.